



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EUSKO JAURLARITZA
HIGIEZINEN ESKAINTZA
2001eko 4. hiruhilekoa

Azken txostena
(Ref. E1753 Rev. 0)

2002ko otsaila



AURKIBIDEA

Orrialdea

1. SARRERA	2
2. ETXEBIZITZA ESKAINTZAREN ADIERAZLE OROKORRAK	7
2.1. ETXEBIZITZA-KOPURUA	7
2.2. PREZIOAK ETA ERRENTAK	9
3. SALGAI DAUDEN ETXEBIZITZEN ESKAINTZA	15
3.1. SALGAI DAUDEN ETXEBIZITZA BERRIAK.....	15
3.1.1. <i>Eskainitako etxebizitzaren promozioen ezaugarri orokorrak</i>	15
3.1.2. <i>Salmenten bilakaera</i>	17
3.1.3. <i>Salgai dauden etxebizitzaren kuantifikazioa eta ezaugarriak</i>	19
3.1.4. <i>Salgai dauden etxebizitza berriak prezioaren arabera</i>	22
3.2. SALGAI DAUDEN ERABILITAKO ETXEBIZITZAK	27
3.2.1. <i>Kopurua eta ezaugarriak</i>	27
3.2.2. <i>Salgai dauden erabilitako etxebizitzaren prezioak</i>	28
4. ALOKAI RUAN DAUDEN ETXEBIZITZAK	32
5. ETXEBIZITZEN ESKAINTZA EREMU GEOGRAFIKOEN ARABERA	35
5.1. SALGAI DAUDEN ETXEBIZITZA BERRI LIBREAK	35
5.2. SALGAI DAUDEN BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZA BERRIAK	39
5.3. SALGAI DAUDEN ERABILITAKO ETXEBIZITZAK	41
5.4. ALOKAI RU LIBREAN DAUDEN ETXEBIZITZAK.....	44
5.5. BABESTUTAKO ALOKAI RUAN DAUDEN ETXEBIZITZAK.....	45
6. GARAJE, TRASTELEKU ETA LOKALEN ESKAINTZA	48
6.1. GARAJEEN ESKAINTZA	48
6.2. TRASTELEKUEN ESKAINTZA	49
6.3. MERKATARITZA-LOKALEN ESKAINTZA.....	50
7. HIGIEZINEN MERKATUAREN DINAMIKA ETA ETORKIZUNA	53
7.1. GAUR EGUNGO DINAMIKA	53
7.1.1. <i>Merkatuaren egoeraren kalifikazioa</i>	53
7.1.2. <i>Salmenten bilakaera eta gauzapen-epeak</i>	54
7.1.3. <i>Merkatuaren dinamikan eragina duten faktoreak</i>	57



7.2. AURREIKUSPENAK	59
7.2.1. <i>Salmenten bilakaerari buruzko aurreikuspenak</i>	59
7.2.2. <i>Salneurrien bilakaerari buruzko aurreikuspena</i>	61
7.2.3. <i>Promozio berrien hasieraren aurreikuspena</i>	63
A. ERANSKINA ESKUALDE-EGITUREN, HIRIBURUETAKO EREMUEN ETA UDALERRI NAGUSIEN ARABERAKO ESTATISTIKA- TAULAK	65



TAULEN AURKIBIDEA

Orrialdea

1.1. taula	Egindako inkesta eraginkorraren lurralde-banaketa	2
2.1. taula	EAEn eskainitako etxebizitzaren bilakaera	8
2.1. taula	EAEn salgai dauden etxebizitzaren m ² erabilgarriko prezioaren bilakaera*	11
2.2. taula	EAEn eskainitako etxebizitzaren prezio zein errenten bilakaera	13
3.1. taula	Promotoreek zuzenean eskainitako etxebizitza-promozioen ezaugarri orokorrak	16
3.1. taula	Etxebizitza libreen salmenten bilakaera eta stock-aren iraupena*	18
3.2. taula	Erregimen libreko promozioetako etxebizitzaren bilakaera*	19
3.1. taula	Etxebizitza berriak salgai, lurralde historikoen arabera	20
3.2. taula	Salgai dauden etxebizitza berrien ezaugarriak	21
3.1. taula	Salgai dauden etxebizitza berrien m ² erabilgarriko prezioa lurralde historikoen arabera	23
3.2. taula	Etxebizitzaren m ² erabilgarriaren prezioa, ezaugarrien arabera	25
3.3. taula	Salgai dauden etxebizitza berrien prezioa, lurralde historikoen arabera	26
3.4. taula	Salgai dauden etxebizitza berrien banaketa, prezioen arabera	26
3.1. taula	Salgai dauden erabilitako etxebizitzak eta prezioak, lurralde historikoen arabera	28
3.2. taula	Salgai dauden erabilitako etxebizitzaren ezaugarriak	28
3.1. taula	Salgai dauden erabilitako etxebizitzaren banaketa, prezio-tarteen arabera	30
5.1. taula	Salgai dauden etxebizitza berriak eta prezioak, eremu geografikoen arabera	36
5.1. taula	Salgai dauden babestutako etxebizitza berriak eta prezioak eremu geografikoen arabera	40
5.1. taula	Salgai dauden erabilitako etxebizitzak eta prezioak, eremu geografikoen arabera	41
5.1. taula	Alokairuan dauden etxebizitza libreak eta errentak, eremu geografikoen arabera	45
5.1. taula	Alokairuan dauden babestutako etxebizitza berriak eta prezioak eremu geografikoen arabera	46
6.1. taula	Salgai eta alokairuan dauden garajeen eskaintza eta prezioak	48
6.1. taula	Salgai eta alokairuan dauden trastelekuen eskaintza eta prezioak	49
6.1. taula	Salgai eta alokairuan dauden merkataritza-lokalen eskaintza eta prezioak	50
7.1. taula	Higiezinaren merkatuaren dinamismo-indizea* promotoreen eta higiezinaren jabetzako agenteen arabera	54
7.1. taula	Salmenten bilakaeraren indizeak* aurreko hiruhilekoarekiko, promotoreen eta higiezinaren jabetzako agenteen arabera	56
7.2. taula	Etxebizitzaren salmenten epeak eta erritmoa	57
7.1. taula	Merkatuaren egungo dinamikan eragina duten faktoreen batez besteko indizeak	58



7.1. taula	Salmentei buruzko aurreikuspenen indizea* datorren hiruhilekorako, promotoreen eta higiezin jabetzako agenteen arabera	60
7.1. taula	Etxebizitzen prezioen bilakaerari buruzko aurreikuspenen indizeak* datozen sei hilabeteetarako, promotoreen eta higiezin jabetzako agenteen arabera	62
7.2. taula	Etxebizitzen prezioen bilakaerari buruzko aurreikuspenen indizeak* datozen hamabi hilabeteetarako, promotoreen eta higiezin jabetzako agenteen arabera	63
7.1. taula	Etxebizitza promozio berrien eskaintzari buruzko aurreikuspena datorren hiruhilekorako. Baietz erantzun duten promotoreen ehunekoak (%)	64
A.1. taula	Salgai dauden etxebizitza libre berriak eta eskualde-egituren araberrako prezioak	66
A.2. taula	Salgai dauden erabilitako etxebizitzak eta eskualde-egituren araberrako prezioak	66
A.3. taula	Erregimen librean alokairuan dauden etxebizitzak eta eskualde-egituren araberrako errentak	67
A.4. taula	Salgai dauden etxebizitza libre berriak eta hiriburuetako prezioak, zonaldeen arabera	68
A.5. taula	Salgai dauden erabilitako etxebizitzak eta hiriburuetako prezioa, zonaldeen arabera	69
A.6. taula	Alokairuan dauden etxebizitza libreak eta hiriburuetako errentak, zonaldeen arabera	70
A.7. taula	Salgai dauden etxebizitza libre berriak eta prezioak udalerrinagusietan	70
A.8. taula	Salgai dauden erabilitako etxebizitzak eta prezioak udalerrinagusietan	71
A.9. taula	Alokairuan dauden erregimen libreko etxebizitzak eta errentak udalerrinagusietan	71
A.10. taula	Salgai dauden familiabakarreko etxebizitza libre berriak eremu geografikoen arabera	72



GRAFIKOEN AURKIBIDEA

Orrialdea

2.1. grafikoa	Etxebizitza-kopurua, motaren eta joan den urtearekiko aldaketa-tasen arabera	9
2.1. grafikoa	Prezioen bilakaera m ² -ko, etxebizitza-motaren arabera	11
2.2. grafikoa	m ² erabilgarriko prezioak eta urteko aldaketa-tasak, etxebizitza-motaren arabera.....	12
3.1. grafikoa	Promozioen batez besteko tamainaren bilakaera erregimenaren arabera 16	
3.1. grafikoa	Promozio libreetako etxebizitza-kopuruaren bilakaera eta salgai dauden etxebizitza libreen kopuruarena*	18
3.1. grafikoa	Salgai dauden etxebizitza berri libreen ezaugarriak.....	21
3.2. grafikoa	Eskaintza libre osoaren ezaugarrien eta hiruhileko honetan lehen aldiz bildutakoaren ezaugarrien arteko alderaketa.....	22
3.1. grafikoa	Etxebizitza libre berrien prezioa m ² -ko lurralde historikoen arabera	24
3.2. grafikoa	Salgai dauden etxebizitza libre berri guztien zein hiruhileko bakoitzean bildutakoaren m ² -ko prezioen bilakaera	24
3.3. grafikoa	Etxebizitza berri libreen m ² erabilgarriko prezioa, ezaugarrien arabera	25
3.4. grafikoa	Etxebizitza libre berrien banaketa, prezio-tarteen eta lurraldeen arabera 27	
3.5. grafikoa	Erabilitako etxebizitzen prezioa m ² -ko, lurralde historikoen arabera	29
5.1. grafikoa	Etxebizitza berrien eskaintzaren banaketa, eremu geografikoen arabera 36	
5.2. grafikoa	Etxebizitza berri libreen m ² -ko prezioen bilakaera, eremu geografikoen arabera	37
5.3. grafikoa	Salgai dauden etxebizitza berri libreen prezioak m ² -ko, eremu geografikoen arabera.....	38
5.4. grafikoa	Salgai dauden etxebizitzen m ² -ko prezioa, etxebizitza-motaren eta eremu geografikoen arabera	43
5.5. grafikoa	Erabilitako etxebizitzen m ² -ko prezioen bilakaera, eremu geografikoen arabera	43
5.6. grafikoa	Salgai dauden erabilitako etxebizitzen m ² -ko prezioak, eremu geografikoen arabera.....	44
6.1. grafikoa	Garajeen salneurrien bilakaera lurralde historikoen arabera	49
6.2. grafikoa	Lokalen m ² -ko prezioen bilakaera, lurralde historikoen arabera.....	51
7.1. grafikoa	Dinamismo-indizearen bilakaera lurralde historikoen arabera (batez besteko mugikorrek-4)	53
7.2. grafikoa	Merkatuaren dinamikan eragina duten faktoreak	58
7.3. grafikoa	Salmenten aurreikuspen-indizeen bilakaera	61



1. SARRERA



1. SARRERA

- ρ Jarraian, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak **Ikeiri** eskatutako 2001. urteko laugarren hiruhilekoari dagokion EAeko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko txostena aurkezten da.
- ρ Txostena gauzatzeko erabili den metodologia EAeko etxebizitza-eskaintzaren promotoreei zein higiezin jabetzako agenteei eginiko inkestetan oinarritu da. Promotoreen kolektiboan egindako prospekzioak, kasu honetan, etxebizitza-eskaintza duten 107 promotore identifikatu ditu (bost etxebizitza baino gehiagoko promozioez ari gara). Bestalde, higiezin jabetzako 125 agenterik egin zaie kontsulta. 1.1. taulak laginen banaketa geografikoa adierazten du.
- ρ Inkesta honek, berau gauzatutako unean (abenduan) eskutan duen eskaintza zenbatekoa den eta zein ezaugarri dituen adierazteko eskatzen dio operadore bakoitzari. Promotoreen kasuan, noski, etxebizitza berriez ari gara, eta higiezin jabetzako agenteen kasuan bai etxebizitza berriez (promotoreen bidez saldutakoez), bai erabilitakoez (partikularren bidez saldutakoez). Horrez gainera, merkatuaren egoerari buruzko balorazio-galderen atal bat ere badago.

1.1. taula Egindako inkesta eraginkorraren lurralde-banaketa

	<i>PROMOTOREAK</i>	<i>HIGIEZINEN AGENTZIAK</i>
<i>Araba</i>	17	12
<i>Gipuzkoa</i>	42	50
<i>Bizkaia</i>	48	63
EAE	107	125

Iturria: EAeko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko Inkesta. 2001. urteko 4. hiruhilekoa.

- ρ Txostenaren irakurketarekin hasi aurretik, ohar bat: hemen agertuko diren prezioak EAeko *etxebizitza kolektibo*ei dagozkie (*blokeetakoei*); izan ere, eskaintako etxebizitza gehienak horrelakoak dira.
- ρ Denbora aldetiko bilakaerari dagokionez, txostenean, iazko hiruhileko berean lortutako balioarekin alderatuta aztertu den aldagaian (etxebizitza-kopurua edota azalera erabilgarriaren prezioak) emandako aldaketei erreparatzen zaie nagusiki. Zernahi gisaz, zenbait kasutan azken hiru hilabeteetako bilakaera ere hartzen da kontuan.



- ρ Etxebizitzen prezioari dagokionez, azpimarratu beharra dago, haztatutako¹ prezioak direnez, horren bilakaera ondoko faktoreen ondorio dela: prezioena beraiena, prezio-maila bakoitzeko etxebizitza-kopuruarena eta eskaintzaren kokapen geografikoarena. Etxebizitzako prezioen batez bestekoan, gainera, eragina dute eskaintzan dauden etxebizitzen batez besteko azaleraren bilakaerak eta, oro har, etxebizitzaren tipologiak.
- ρ Ildo horretan, gune espazial jakin bateko prezio-aldaketak, batez bestekoetan emandako aldaketa gisa ulertu behar dira. Hau da, esate baterako, lehena-goko aldietan baino prezio baxuagoak izateak ez du eskaintzan dauden etxebizitzen prezioak oro har behera egin duela adierazten, nahitaez; aitzitik, gerta liteke oraingoan prezio baxuagoko etxebizitza gehiago egotea.
- ρ Hala ere, esan beharra dago, etxebizitzen “saskiaren” eraketan prezioen bilakaeraren irakurketan izan daitezkeen distortsioak ahal den neurrian saihestearren, *etxebizitza-eredua* izenaz izendatu den eta zertxobait homogeneouskoa den “produktua” ari dela txertatzen. Ondokoak dira beronen definizioan eragina duten elementuak: berria, kolektiboa, promoziokoa, promotoreak zuzenean eskainia, akabera-maila normalekoa eta 60 eta 90 metro koadro bitarteko azalera duen etxebizitza da. Horrek badu bere helburua: akabera-mailaren, merkaturatzen diren eraren edota tipologiaren arabera eskaeraren eraketan dauden aldaketek ez izatea eraginik (edota interferentziarik) batez besteko prezio orokorrean.
- ρ Edozein kasutan, aurkezten diren emaitzak lagin-modukoak direla esan behar da; eta horrela izateak berebiziko garrantzia dauka eskaintzaren kuantifikazioari dagokionez. Bada aipamen berezia merezi duen beste puntu bat, erabilitako etxebizitzen kasuan batez ere: prezioak saltzaileak *eskatutakoak* dira. Eta prezio horiek zenbait kasutan aldatu egiten dira –batzuetan asko gainera– azkenean egiaz ordaindutakoarekiko edota negoziaketan esku hartu dutenen artean adostutakoarekiko.
- ρ Txostena zazpi kapitulutan dago egituratuta, Sarrera hau barne. Bigarren kapituluak bildutako eskaintza osoaren ikuspegi orokorra eta horren bilakaera erakusten digu, bai eta honakoa ere: eskaintzaren bolumena etxebizitza-motaren arabera, eta azalera erabilgarrien arabera prezioak eta prezio absolutuak au-

¹ Etxebizitzako zein metro koadroko batez besteko salmenta-prezioak, etxebizitza-mota bakoitzaren eskaintzaren bolumenaren arabera haztapena eginez biltzen dira.



tonomia-erkidegoan (lurralde historikoen arabera azterketa ondorengo kapituluetan egingo da).

- ρ Hirugarren kapituluaren muina salgai dagoen etxebizitzak osatzen du. Lehendabizi eraiki berriak aztertzen ditu, eta eskaintza kuantifikatu eta bere prezioak aztertzerakoan promozioen zein etxebizitzaren ezaugarrietan emandako aldaketei erreparatu zaie. Bigarrenik, salgai dauden erabilitako etxebizitzaren ezaugarriak aztertzen ditu.
- ρ Laugarren kapituluak alokatuta dauden etxebizitzaren eskaintzaren bolumen, tipologia zein prezioen bilakaera islatzen du.
- ρ Bosgarren kapituluak etxebizitzaren eskaintza eta prezioak ondoko gune espazialetan zehazten ditu: hiriburuak, hiriburuetako eskualde-egiturak (hauek kanpoan direla) eta lurralde historikoak hiriburu bakoitzeko eskualde-egiturak kanpoan direla (eranskin batean, geografia mailako datu zehatzagoak aurki daitezke).
- ρ Seigarren kapituluak, batez ere, garaje, lokal eta trastelekuen inguruko bolumen eta prezioei buruzko datuak biltzen ditu, lurralde historikoen arabera.
- ρ Azkenik, zazpigarren kapituluak Euskadiko higiezinaren merkatuaren dinamika azaltzen du, beti ere galdetutako promotore eta agenteen ikuspuntutik. Kasu honetan ere, aurreko hiruhilekoarekiko bilakaera kontuan hartu da, bai eta etorkizunari begirako aurreikuspenak ere.
- ρ 1.2. taulan, joan den hiruhilekoan, oraingoan eta orain urtebete bildu diren eta etxebizitzaren merkatu libre eta babestuan giltzarri diren aldagaien laburpen sintetikoa aurkezten da.



1.2. taula Etxebizitza-eskaintzaren indizeen laburpena

MERKATU LIBREA	2000	2001	2001
	4. hiruhilab.	3 hiruhilab.	4. hiruhilab.
1. ETXEBIZITZA BERRIA			
• Salgai dauden etxebizitza-kopurua. Guztira EAE.....	4.415	2.762	2.905
• Salgai dauden etx. -kop. 1. aldiz hiruhil.an bilduak EAE	2.675	1.011	1.183
• Prezioa/m ² a.e. *-Etxebizitza-eredua** EAE.....	1.712,9	2.253,8	2.083,4
• Prezioa/m ² a.e. *-Guztira EAE.....	1.887,2	2.271,8	2.219,7
• Prezioa/m ² a.e. *-1. aldiz hiruhil.an bilduak EAE.....	1.815,1	2.289,9	2.182,1
• Prezioa/m ² a.e. *-Gasteiz.....	2.019,4	2.235,8	2.278,8
• Prezioa/m ² a.e. *-Donostia.....	3.389,7	3.017,1	3.007,1
• Prezioa/m ² a.e. *-Bilbao.....	1.628,7	2.073,5	2.162,5
Eskaintza duten promozio-kopurua:			
Guztira.....	148	131	138
Lehen aldiz hiruhilekoan bildutakoak.....	51	25	44
2. ERABILITAKO ETXEBIZITZAK			
• Salgai dauden etxebizitza-kopurua.....	6.947	8.616	9.472
• Prezioa/m ² a.e. *-EAE.....	2.404,0	2.464,1	2.373,2
• Prezioa/m ² a.e. *-Gasteiz.....	2.704,6	2.728,6	2.777,5
• Prezioa/m ² a.e. *-Donostia.....	3.534,0	3.582,0	3.635,5
• Prezioa/m ² a.e. *-Bilbao.....	2.235,8	2.398,0	2.221,2
3. ALOKAI RUAN DAUDEN ETXEBIZITZAK			
• Etxebizitza-kopurua.....	474	459	380
• Errenta hileko *-EAE.....	595,0	625,1	636,8
• Errenta hileko *-Gasteiz.....	781,3	769,3	716,8
• Errenta hileko *-Donostia.....	811,4	805,4	703,2
• Errenta hileko *-Bilbao.....	631,1	601,0	643,1
4. MERKATUKO INDIZEAK			
• Dinamismo-indizea***.....	40,9	40,2	35,9
• Salmenta-aurreikuspenen indizea (hurr. hiruh.)***.....	53,7	64,9	57,3
• Prezioen aurreikuspen-indizea (6 hilabetera)***.....	56,3	59,0	56,1
• Datorren hiruhil.an eskainiko den etx. aurreikuspena..	919	563	726
BABESTUTAKO MERKATUA	2000	2001	2001
	4. hiruhilab.	3 hiruhilab.	4. hiruhilab.
1. ETXEBIZITZA BERRIAK			
• Salgai dauden etxebizitza-kopurua. Guztira EAE.....	3.158	2.892	3.398
• Prezioa/m ² a.e. *-Guztira EAE.....	799,3	775,3	806,2
• Prezioa/m ² a.e. *-Gasteiz.....	751,3	631,1	837,0
• Prezioa/m ² a.e. *-Donostia.....	--	--	--
• Prezioa/m ² a.e. *-Bilbao.....	871,5	763,3	763,5
2. ALOKAI RUAN DAGOEN ETXEBIZITZA			
• Etxebizitza-kopurua.....	387	379	275
• Errenta hileko *-EAE.....	180,3	186,3	197,0
• Errenta hileko *-Gasteiz.....	156,3	180,3	180,3
• Errenta hileko *-Donostia.....	222,4	204,3	348,6
• Errenta hileko *-Bilbao.....	--	--	--

(*): Euroak.

(**): Etxebizitza-eredua: berria, kolektiboa, promozio librekoa, promotoreak zuzenean eskainitakoa, akaberata maila normalekoa eta 60 zein 90 m² arteko azalera duena.

(***): 0 (gelditasun gorenekoa) eta 100 (dinamismo gorenekoa) artean daude.

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko Inkesta. 2001. urteko 4. hiruhilekoa.



2. ETXEBIZITZA-ESKAINTZAREN ADIE- RAZLE OROKORRAK



2. ETXEBIZITZA ESKAINTZAREN ADIERAZLE OROKORRAK

2.1. ETXEBIZITZA-KOPURUA

- ρ 2001. urteko laugarren hiruhilekoan promotoreei eta higiezin jabetzako agenteei egindako inkestaren arabera, guztira 16.430 **etxebizitza daude eskaintzan**.
- ρ **Salgai** dauden etxebizitzak %96 dira eta **alokairuen** eskaintzak gainerako %4 hartzen du; hau da, 15.775 etxebizitza eta 655, hurrenez hurren.
- ρ Salmentan eskainitako etxebizitzen **babes-erregimena** kontuan hartuta, etxebizitza libreek %78 osatzen dute (12.757) eta etxebizitza babestuek, berriz, gainerako %22 (3.673). Baina salmentan dauden etxebizitzen eskaintza eta alokairuan daudenena bereiztuta, ikus daiteke alokairuko etxebizitzen artean babestutako etxebizitzak pisu handia duela: %42.
- ρ Dena den, azpimarratu egin behar da eraikuntza berriko etxebizitzen merkatuan babestutako etxebizitzen kopurua handiagoa dela libreena baino: babestutako 3.673 etxebizitza (%56) eta 2.905 etxebizitza libre (%44). Eraitza horrek, lehenengo aldiz 2001eko bigarren hiruhilekoan lortua, etxebizitza babestuek eraiki berrien merkatuan hartu duten pisua adierazten du.
- ρ Etxebizitza-motaren arabera (berria edo erabilitakoa) salgai dauden etxebizitzen banaketari dagokionez, aurreko hiruhilekoan bezala **bigarren eskukoak** gehiago dira **eraiki berriak** baino: %60 (9.472 etxebizitza) eta %40 (6.303 etxebizitza) hurrenez hurren.
- ρ Atzemandako alokairuko eskaintzaren arabera, alokairuko etxebizitza berri guzti-guztiak babestutakoak dira (275 etxebizitza); alokairu libreko guztiak (380 etxebizitza), aldiz, partikularrenak dira.
- ρ Eskaintza osoaren bolumenaren **bilakaera** 2000ko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta aztertuz gero, ikusten da eskaintza pixka bat handitu dela (+%7). Dena den, sektoreek joera desberdinak izan dituzte: erabilitako etxebizitzaren eskaintzak nabarmen egin du gora (+%36); salmenta libreko etxebizitza berrien eskaintzak eta alokairuko etxebizitzen eskaintzak ere behera egin dute (-%34); eta babestutako etxebizitzen eskaintzak ere urteko %8ko igoera izan du.



- p Salgai dauden babestutako etxebizitzetara dagokionez, honela banatzen dira: %68 babes ofizialeko etxebizitzak dira, eta %32, berriz, babes sozialekoak. Banaketa honek babes ofizialeko etxebizitzaren goranzko joera adierazten du, babes sozialekoen kaltetan.
- p 2001eko laugarren hiruhilekoan **lehenengo aldiz atzemandako salgai dauden etxebizitza berri libreak** 1.183 dira. Duela urtebeteko kopuruarekiko nabarmen jaitsi da (-%56); baina, dena den, azken hiruhilekoetako beheranzko eboluzioa pixka bat aldatu da, eta, beraz, proiektu berri gehiago jarri dira abian.

2.1. taula EAEn eskaintako etxebizitzaren bilakaera


	GUZT.	SALMENTA					ERAB.	ALOKAI- RUA *
		SALME GUZT.	BERRIA					
			Guztira	B.O./Sozialak	Libre			
1994 Batez b.	12.778	11.681	4.721	1.391	3.331	7.029	1.028	
1995 Batez b.	12.662	11.681	4.035	1.317	2.718	7.646	986	
1996 Batez b.	18.021	16.843	5.106	1.801	3.305	11.071	1.152	
1997 Batez b.	16.195	14.638	4.066	1.034	3.032	10.572	1.557	
1998 Batez b.	12.298	10.883	3.741	1.493	2.248	7.142	1.415	
1999 Batez b.	10.258	9.148	4.560	2.197	2.363	4.589	1.110	
2000 Batez b.	12.463	11.448	5.613	2.477	3.136	5.836	1.015	
2000 IV	15.381	14.520	7.573	3.158	4.415	6.947	861	
2001 I	13.496	12.531	5.417	2.296	3.121	7.114	965	
II	15.522	14.663	5.739	3.251	2.488	8.924	859	
III	15.108	14.270	5.654	2.892	2.762	8.616	838	
IV	16.430	15.775	6.303	3.398	2.905	9.472	655	

*: Alokairuan dauden etxebizitza libre eta babestuen eskaintza hartzen du bere baitan.

Iturria: EAeko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko Inkesta. 2001. urteko 4. hiruhilekoa.



2.1. grafikoa Etxebizitza-kopurua, motaren eta joan den urtearekiko aldaketa-tasen arabera



2.2. PREZIOAK ETA ERRENTAK

- EAEn, **etxebizitzaren azalera erabilgarriaren metro koadroko batez besteko prezioa merkatu librean** (etxebizitza berriak zein erabilitakoak) 2.338 euro/m² izan da 2001. urteko laugarren hiruhilekoan. Promozio libreko etxe berriek 2.220 euro/m² balio dute, eta bigarren eskukoek², berriz, 2.373 euro/m².
- Erabilitako etxebizitzetan** prezioen urteko tasa negatiboa izan da (-%1,3) eta azken hiruhilekoetan gertatu bezala, prezioei eutsi egin zaiela adierazten du. Bereziki nabarmena izan da Gipuzkoan³, baina 2001eko hirugarren hiruhileko prezioekin alderatzen badugu, Bizkaian gertatu da prezioen atzerakada handiena.

² Bi alderdi garrantzitsu hartu behar dira kontuan datu hau interpretatzeko orduan: 1) etxebizitza eskaintzen dutenek eskatutako prezioak dira, beraz, oro har, bi aldean arteko negoziazioaren ondoren benetan ordaindutako prezioaren gainetik egongo dira. Eta 2) EAEko hiru hiriburuetan eskaintza-mota hori nahiko handia da: %63.

³ 3. atalean azaltzen da zehazki prezioek lurraldeka izan duten aldaketa eta 5. atalean aldaketa hori zehazkiago azaltzen da datu geografikoekin.



- ρ **Salmentan dauden etxebizitza libre berrien** urteko prezioak gora egin du: %17,6 kopuru erantsietan. Baina azpimarratzekoa da aurreko bi hiruhilekoekin alderatuta, etxebizitza libre berrien prezioei ere eutsi egin zaiela, bereziki Araban. Lurralde horretan bi hiruhilekotan jarraian etxebizitza libre berrien prezioaren jaitsiera gertatu dela ikusi daiteke.
- ρ **Hiruhileko honetan *lehen aldiz bildutako* etxebizitza libre berrien** (gehi-enak duela gutxi eraikitzen hasitakoak dira) batez besteko prezioa (2.182 euro/m² erabilgarria) promozio libreko etxe berrienaren zertxobait azpitik dago.
- ρ **Babestutako etxebizitzen** batez besteko prezioa (eranskinak kontuan izan gabe) 806 euro/m²-koa da. Babes ofizialekoak eta sozialak bereiziz, honakoak dira balioak: 908 eta 531 euro/m², hurrenez hurren.
- ρ Azken hiruhileko honetan higiezinaren eskaintzan lehen aldiz sartutako etxebizitza babestuen metro koadro erabilgarriaren batez besteko balioa 950 eurokoa da.
- ρ *Etxebizitza-ereduaren*⁴ prezioa metro koadroko 2.083 eurokoa da. Hots, etxebizitza libre berrien prezioa baino %6 txikiagoa da, baina duela urtebete atzemandakoa baino %22 handiagoa.

⁴ Ikus Sarrera, bertan azaltzen baita "*etxebizitza-ereduaren*" kontzeptua.



2.2. taula EAEn salgai dauden etxebizitzaren m² erabilgarriko prezioaren bilakaera*


	ETXEB. LIBREAK GUZTIRA (**)	ETXEBIZITZA LIBREAK			ERABIL. ETXEBIZ.
		B.O./SOZIALAK	LIBREAK		
			GUZTIRA	ETXEBIZ. EREDU	
1994 Batez b.	1.292,2	643,1	1.268,1	1.111,9	1.328,2
1995 Batez b.	1.388,3	703,2	1.496,5	1.256,1	1.352,3
1996 Batez b.	1.424,4	697,2	1.502,5	1.238,1	1.400,4
1997 Batez b.	1.424,4	703,2	1.478,5	1.160,0	1.406,4
1998 Batez b.	1.460,5	637,1	1.490,5	1.238,1	1.454,4
1999 Batez b.	1.773,0	703,2	1.568,6	1.424,4	1.881,2
2000 Batez b.	2.169,7	751,3	1.839,1	1.562,6	2.337,9
2000 IV	2.205,7	799,3	1.887,2	1.712,9	2.404,0
2001 I	2.307,9	835,4	2.145,6	1.971,3	2.380,0
II	2.380,0	841,4	2.241,8	2.313,9	2.416,1
III	2.416,1	775,3	2.271,8	2.253,8	2.464,1
IV	2.337,9	806,2	2.219,7	2.083,4	2.373,2

(*) euro/m².

(**)Promozio libreko etxebizitza berri zein erabilitakoen batez besteko prezioa.


Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko Inkesta. 2001. urteko 4. hiruhilekoa.

2.2. grafikoa Prezioen bilakaera m²-ko, etxebizitza-motaren arabera





2.3. grafikoa m² erabilgarriko prezioak eta urteko aldaketa-tasak, etxebizitza-motaren arabera



- ρ **Etxebizitzaren batez besteko prezioari** dagokionez, merkatu librean 198.000 eurokoa izan da (berriak eta erabilitakoak multzo berean sartuz) eta babestutakoetan, berriz, 60.000 eurokoa (babes ofizialekoak eta sozialak). Salgai dauden etxebizitza libre berriek 192.000 euroko prezioa dute batez beste; erabilitakoen⁵ batez bestekoa, berriz, 199.000 eurokoa da.
- ρ EAEn partikularrek jabetza higiezinaren agenteen bidez eskainitako etxebizitzaren **alokairu librearen batez besteko errenta** hileko 637 eurokoa da (orain urtebete 595 eurokoa).

⁵ Ikus 2. orri-oina.



2.3. taula EAEn eskaintako etxebizitzaren prezio zein errenten bilakaera

	ETXEB. LIBREAK GUZTI. (***)	ETXEBIZITZA BERRIA (*)		ERABIL. ETXEBEI- ZITZA (*)	ALOKAT. ETXEBI. LIBR. (**)	
		B.O./SOZIALAK	LIBREAK			
1994	Batez b.	116,0	49,9	120,2	111,2	583,0
1995	Batez b.	129,2	48,7	136,4	126,2	534,9
1996	Batez b.	126,2	51,1	134,6	123,8	528,9
1997	Batez b.	126,8	52,3	125,6	127,4	528,9
1998	Batez b.	133,4	46,3	125,0	136,4	528,9
1999	Batez b.	156,9	54,1	142,4	164,1	565,0
2000	Batez b.	186,3	55,9	161,1	200,1	595,0
2000	IV	192,9	60,7	165,9	209,8	595,0
2001	I	197,1	62,5	191,7	199,5	613,0
	II	208,0	62,5	198,3	210,4	661,1
	III	201,9	57,7	197,7	203,1	625,1
	IV	197,6	60,0	191,9	199,3	636,8

(*) Milaka euro etxebizitzako.

(**) euro/hileko.

(***) Promozio libreko etxebizitza berri zein erabilitakoen batez besteko prezioa.

Iturria: EAeko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko Inkesta. 2001. urteko 4. hiruhilekoa.



2. SALGAI DAUDEN ETXEBIZITZEN ES- KAINZA



3. SALGAI DAUDEN ETXEBIZITZEN ESKAINTZA

3.1. SALGAI DAUDEN ETXEBIZITZA BERRIAK

3.1.1. Eskainitako etxebizitzaren promozioen ezaugarri orokorrak⁶

- ρ 2001. urteko laugarren hiruhilekoari dagokion inkestaren arabera, eskaintzan dauden **etxebizitza-promozioen kopurua** 196koa da (orain urtebete baino 3 promozio gutxiago). Guztira 9.440 etxebizitza dira (aurreko urteko hiruhilekoan baino 717 gutxiago). Promozio horietatik 63 hiruhileko honetan bildu dira lehen aldiz (70 duela urtebete) eta 2.648 etxebizitza dira salgai edo salduta daudenak (4.084 aurreko urtean).
- ρ Promozioaren **erregimenari** dagokionez, 138 libreak dira (duela urtebete 148), babes ofizialekoak 37 (duela urtebete 26) eta sozialak 21 (duela urtebete 25).
- ρ Orokorrean, promozioak **batez beste** 48 etxebizitzakoak dira. Babes-motaren bat duten etxebizitzetan promozio baten batez beste 63 etxebizitza egiten dira, ordea, eta promozio libreetan, berriz, batez beste 42 etxebizitza. *Hiruhileko honetan lehen aldiz bildutako* promozio libreak txikixeagoak dira (32 etxebizitza promozio baten).
- ρ 16 etxebizitza baino gutxiagoko promozioek guztizko promozio libreen %30 osatzen dute eta babestuen %14. Portzentajea, ordea, %41ekoa da lehenengo aldiz hiruhileko honetan bildu direnei soilik erreparatzen bazaie.

⁶ Gainerako guztiak ez bezala, atal honek promotoreei egindako inkestatik ateratako informazioari erreparatzen dio soilik, eta promozioa erabiltzen du oinarriko erreferentzia-unitate gisa.




3.1. taula Promotoreek zuzenean eskaintako etxebizitza-promozioen ezaugarri orokorrak

	HIRUHIL. GUZTIRA	PROMOZIO BERRIAK
Promozio kopurua	196	63
Libreak	138	44
B.O./Sozialak.....	58	19
Promozioen baitako etxebizitza kop.	9.440	2.648
Libreak	5.767	1.414
B.O./Sozialak.....	3.673	1.234
Promozioen batez best. tamaina (etx.-kop.)	48	42
Libreak	42	32
B.O./Sozialak.....	63	65
Tamainaren arabera promoz. libr. Kop.		
< 16 etxebizitza	42	18
16-35 etxebizitza	43	14
> 35 etxebizitza	53	12
Tamainaren arabera babest. Prom. Kop.		
< 16 etxebizitza	8	2
16-35 etxebizitza	15	5
> 35 etxebizitza	35	12

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko Inkesta. 2001. urteko 4. hiruhilekoa.

3.1. grafikoa Promozioen batez besteko tamainaren bilakaera erregimenaren arabera



ρ **Akabera**-mailari dagokionez, ondoko emaitzak lortu dira: *luxuzko* estandarrak promozioen %11 osatzen du (guztiak etxebizitza libreei dagozkie), %42 es-



tandar *altukoei* dagozkie (%56 libreak eta %10 babestuak) eta gainerako %47aren kalifikazioa *normala* da (babestutakoen %90 eta libreetako %28).


3.1.2. Salmenten bilakaera

- ρ **Promozio libreei** dagokienez, **merkatu-egoeraren** araberako etxebizitzaren sailkapenak erakusten duenez, horietatik guztietatik %45 salgai daude (%54 duela urtebete), %52 dagoeneko salduta daude, eta gainerako %3 erreserbatuta.
- ρ Kopuru absolututan, *promotoreek zuzenean merkaturatutako* salgai dauden etxebizitza libre berriak 2.610 dira (3.590 2000-IV.ean). Horietatik guztietatik, hiruhileko honetan lehen aldiz bildutako promozio berrietakoak %42 dira.
- ρ **Orain hiru hilabete jada salgai zeuden etxebizitza libreak** soilik kontuan hartuz, **itxuraz gauzatu diren salmenten bilakaeraren** hiruhileko jarraipen bat egin daiteke. Horrela, 2001eko hirugarren hiruhilekoari dagokionez, aurreko hiruhilekoan salgai zeuden etxebizitzaren %24 saldu dira (promotoreen bitartez).
- ρ Urteko azken hiruhileko honetan saldutako etxebizitzaren gutxi gorabeherako kopurua 2000. urteko hiruhileko bererako aurreikusita zegoen kopurua baino %14 handiagoa da. Promotoreek eskainitako etxebizitza-kopurua, berriz, duela urtebetekoa⁷ baino %27 txikiagoa da.

⁷ Gogoratu beharra dago azterketa hori promotoreengandik zuzenean bildutako eskaintzan dagoela oinarriturik; honenbestez, ez da kontuan hartu higiezinaren jabetzako agenteen esku dagoen etxebizitza berrien eskaintza.



3.2. grafikoa Promozio libreetako etxebizitza-kopuruaren bilakaera eta salgai dauden etxebizitza libreen kopuruarena*



(*): Promotoreek zuzenean eskaintako promozioak soilik hartzen dira kontuan; ez, honenbestez, higiezin jabetzako agenteek merkaturatutakoak

3.2. taula Etxebizitza libreen salmenten bilakaera eta stock-aren iraupena*

		Aurreko hiruh. ko eskain. ren arab. azken hir. an saldutako etx. %	Salmenten % aldaketa iazko hiruh. berarekiko	Eskaintzen bolu- men % aldaketa iazko hiruh. berarekiko	Stock-aren iraupena (hil.) (oraingo salm. erritmoan)
2000	I	51,5	-20,2	-36,3	6
	II	44,2	-33,1	-7,7	10
	III	45,3	-27,9	21,9	7
	IV	31,4	-20,8	120,5	12
2001	I	59,7	155,3	54,3	5
	II	39,5	37,9	-15,5	4
	III	23,8	-55,6	2,4	9
	IV	34,9	13,8	-27,3	12

(^): Promotoreek zuzenean eskaintakoak.

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko Inkesta. 2001. urteko 4. hiruhilekoa.



3.3. taula Erregimen libreko promozioetako etxebizitzaren bilakaera*

		ETXEBIZITZAK GUZTIRA	ETXEBIZITZAK SALGAI	ETXEB. SALGAI/ETX. GUZTIRA (%)
1994	Batez b.	3.199	1.612	50,3
1995	Batez b.	4.573	1.734	38,0
1996	Batez b.	6.527	2.321	35,5
1997	Batez b.	6.679	2.393	35,8
1998	Batez b.	4.813	1.911	39,7
1999	Batez b.	4.653	2.188	46,9
2000	Batez b.	5.330	2.499	46,9
2000	IV	6.612	3.590	54,3
2001	I	5.869	2.476	42,2
	II	5.466	2.150	39,4
	III	5.746	2.310	40,2
	IV	5.767	2.610	45,3

(*): Promotoreek zuzenean eskainitakoak.

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko Inkesta. 2001. urteko 4. hiruhilekoa.

3.1.3. Salgai dauden etxebizitzaren kuantifikazioa eta ezaugarriak

- ρ 2001. urteko laugarren hiruhilekoan egindako inkestaren arabera, **salgai dauden etxebizitza berriak guztira** (libreak eta babestuak barne) 6.303 dira. Etxebizitza horien %91 promotoreen artean egindako inkestaren bidez eskuratu dira; gainerako %9ari buruzko informazioa, berriz, etxebizitza berriak ere merkaturatzen dituzten higiezin agentzien bidez lortu da.
- ρ **Lurraldeka**, Bizkaiak eskaintzaren %54 biltzen du, Gipuzkoak %28 eta Arabak gainerako %18.
- ρ **Promozio-erregimenaren** arabera, salgai dauden etxebizitza berriak honela daude banatuta: %46 libreak dira, %39 babes ofizialekoak eta %15 sozialak.
- ρ Hiruhileko honetan salgai atzemandako etxebizitza berrien **kopurua** duela urtebete atzemandakoarekin alderatuz, jaitsiera %17koa izan da, guztira. Dena den, babestutako sektoreak eta etxebizitza libreen merkatuak aurkako norabideak dituztela ikusten da. Etxebizitza berri libreek jaitsiera handia izan dute (-%34), eta babestutako sektoreak, aldiz, pixka bat gora egin du (%8) EAEn guztizkoan.



- ρ Lurraldekako banaketari dagokionez, Araban azken hiruhilekoetan etxebizitza berrien eskaintzak behera egin duela atzematen da. Jaitsiera hori, gainera, babestutako etxebizitzetan (-%30) zein merkatu librean atzematen da (-%58).
- ρ Gipuzkoan, berriz, eskaintzak asko egin du gora 2000ko IV. hiruhilekoarekin alderatuta. Hiruhileko honetako etxebizitza berri libreen eskaintza aurreko urtekoarekiko txikiagoa da (-%23). Bizkaian ere etxebizitza berrien eskaintza murriztu egin da, batez ere etxebizitza libreetan (-%28).
- ρ **Salgai dauden etxebizitzen eskaintzaren berritze-indizea** (hiruhilekoa), hau da, hiruhileko honetan lehen aldiz (promotore zein higiezin jabetzako agenteen bidez) bildutako etxebizitzek kopuru osoarekiko osatzen duten ehunekoa %41ekoa da, aurreko urtekoa baino askoz ere txikiagoa (%61). Datu honek, eskaintza orokor txikiagoarekin batera, promotoreen aldetik proiektu berriak hasteko ekimen txikiagoa erakusten du.

3.4. taula Etxebizitza berriak salgai, lurralde historikoen arabera

	GUZTIRA		B.O./SOZIALAK		LIBREAK	
	Kop.	± % (*)	Kop.	± % (*)	Kop.	± % (*)
Araba	1.117	-45,6	647	-30,1	470	-58,3
Gipuzkoa	1.794	-14,5	789	203,5	1.005	-23,1
Bizkaia	3.392	-14,2	1.962	-0,6	1.430	-27,8
EAE	6.303	-16,8	3.398	7,6	2.905	-34,2

(*): Aurreko urteko hiruhileko berarekiko aldaketa.

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko Inkesta. 2001. urteko 4. hiruhilekoa.

- ρ **Eraikitze-faseari** dagokionez, eta arreta berriz ere promozio *libreei* eskainiz, etxebizitzen %91 *eraikitzen ari direla* ikus daiteke, %7 oraindik *proiektuan* daudela eta dagoeneko *bukatuta* etxebizitzen %2 baino ez daudela.
- ρ Salgai dauden etxebizitza berrien **tipologiari** dagokionez, familia bakarrekoak/bi familiakoak edo erantsiak modukoak etxebizitza libreen %9 dira; etxebizitza babestuetan aldiz ez dago horrelako tipologiarik.
- ρ Salgai dauden etxebizitza berrien **batez besteko tamaina** erabilgarria 79 m²-koa da; babestutakoen batez besteko azalera 73 m²-koa (75 m² duela urtebete) eta libreena, aldiz, 86 m²-koa (00-IV.an 87 m²). Lurraldeka, etxebizitza berri libreen Gipuzkoako batez bestekoa EAEko batez bestekoaren ginetik dago (82



m²). Araban eta Bizkaian, berriz, batez besteko azalera pixka bat txikiagoa da: 77 m² eta 78m², hurrenez hurren.


3.5. taula Salgai dauden etxebizitza berrien ezaugarriak

	B.O./SOZIALAK (%)	ETXE BIZITZA LIBREAK (%)			
		EAE	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
TIPOLOGIA *					
Fam. Bak./Bi familiakoak	0,0	12,8	31,7	11,3	7,6
Colectiva	100,0	87,2	68,3	88,7	92,4
AZALERA ERABILGARR.					
< 60 m ²	10,5	6,1	1,5	6,7	7,1
61-75 m ²	45,8	17,6	12,1	27,8	12,2
76-90 m ²	43,7	39,2	43,4	27,5	46,1
91-120 m ²	0,0	23,4	16,2	21,6	27,0
> 120 m ²	0,0	13,8	26,8	16,5	7,6
ERAIKITZE FASEA *					
Amaitua	4,6	2,1	--	3,8	1,6
Lanetan.....	65,8	90,7	86,7	88,4	93,5
Proiektuan.....	29,8	7,2	13,3	7,8	4,9

(*): Hemen ez dago promotoreen aldetik etorri eta higiezin agentzietan merkaturatutako etxebizitzetarako buruzko informaziorik.


Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko Inkesta. 2001. urteko 4. hiru-hilekoa.

3.3. grafikoa Salgai dauden etxebizitza berri libreen ezaugarriak





3.4. grafikoa Eskaintza libre osoaren ezaugarrien eta hiruhileko honetan lehen aldiz bildutakoaren ezaugarrien arteko alderaketa



3.1.4. Salgai dauden etxebizitza berriak prezioaren arabera

- ρ Etxebizitza libre berriaren **m² erabilgarriaren batez besteko prezioa** 2.220 eurokoa da EAEn, hau da, 2000ko laugarren hiruhilekoa baino %18 handiagoa.
- ρ **Hiruhileko honetan lehen aldiz bildutako etxebizitza libre berrien⁸** batez besteko prezioa eskaintza osoaren prezioa baino pixka bat txikiagoa da: 2.182 euro/m² erabilgarria.
- ρ Lurraldeka, hiru kasuetan etxebizitza libre berrien prezioek gora egin dute. Dena den, Bizkaian dezente egin dute gora (+%26), eta gutxiago Gipuzkoan (+%12) eta Araban (+%6).
- ρ Batez besteko preziorik altuena duena Gipuzkoa da oraindik (2.370 euro/m²). Dena den, azken hiruhilekoetan etxebizitza berri libreen prezioak Bizkaian izan duen gorakada handiak lehenago ikusten zen sakabanaketa murriztu du. Modu horretan, 2000ko laugarren hiruhilekoan Gipuzkoako batez besteko prezioa

⁸ Batik bat duela gutxi amaitutakoei dagokie.



Bizkaikoa baino %24 handiagoa bazen ere, gaur egun alde hori %9ra murriztu da.

- ρ Etxebizitza babestuetan m² erabilgarriaren batez besteko prezioa 806 eurokoa da⁹ (00-IV.an baino %1 handiagoa). Batez besteko hori, babes ofizialeko etxebizitzetara dagokien 907 euro/m² eta sozialen 531 euro/m²-tik dago aterata. Lurraldeka ondorengo ikusten da: babes ofizialeko etxebizitzetara 929 euro/m² eta 850 euro/m² artekoak dira (Bizkaikoa eta Arabakoa, hurrenez hurren). Etxebizitza sozialetan, berriz, 715 euro/m² (Araba) eta 509 euro/m² (Bizkaia) artekoak da.
- ρ **Etxebizitza-ereduaren** (hots, etxebizitza berria, promozio librekoa, eraikin kolektiboan kokatutakoa, promotoreak zuzenean eskainitakoa, akabera-maila "normalekoa" eta 60 zein 90 m² arteko azalera duena), m² erabilgarriko prezioa 2.083 eurokoa da, hau da, EAEn eskainitako etxebizitza libre berriaren batez besteko prezioa baino %6 txikiagoa (2.220 euro/m² erabilgarria).

3.6. taula Salgai dauden etxebizitza berrien m² erabilgarriko prezioa lurralde historikoen arabera

	B.O./SOZIALAK		LIBREAK	
	Euro	± % (*)	Euro	± % (*)
Araba	837,0	13,2	2.036,4	6,2
Gipuzkoa.....	859,1	-8,4	2.369,7	11,4
Bizkaia.....	774,8	-4,5	2.163,2	25,8
EAE.....	806,2	0,9	2.219,7	17,6


(*): Iazko hiruhileko berarekiko prezioen aldatzea.

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko Inkesta. 2001. urteko 4. hiruhilekoa.


⁹ Eranskinak kontuan izan gabe.



3.5. grafikoa Etxebizitza libre berrien prezioa m²-ko lurralde historikoen arabera



3.6. grafikoa Salgai dauden etxebizitza libre berri guztien zein hiruhileko bakoitzean bildutakoan m²-ko prezioen bilakaera






3.7. taula Etxebizitzen m² erabilgarriaren prezioa, ezaugarrien arabera

	Euro/ m ²
ERAIKIN-MOTA	
Familia bakarrekoa/Bi familiakoa.....	1.779,4
Kolektiboa.....	2.219,7
AKABERA*	
Luxuzkoa.....	2.705,0
Altua.....	2.179,2
Normala.....	2.016,2
Baxua.....	---
AZALERA ERABILGARRIA	
< 60 m ²	2.472,6
61-75 m ²	2.243,2
76-90 m ²	2.188,6
91-120 m ²	2.131,6
> 120 m ²	1.909,2
ESKAINTZA- DENBORA - MERKATURATZE MODUA.	
Hiruhileko honetan zuzenean promotoreek.....	2.184,5
Hiruhileko honetan higiezin agenteen bidez.....	2.144,6
Aurreko hiruhilekoetan zuzenean promotoreek.....	2.255,2
Aurreko hiruhilekoetan higiezin agenteen bidez.....	2.165,3
ETXEBIZITZA-EREDUA.....	2.083,4

(*): Hemen ez da azaltzen higiezin jabetzako agenteen bidez merkaturatutako etxebizitza berriei buruzko informaziorik
Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko Inkesta. 2001. urteko 4. hiruhilekoa.

3.7. grafikoa Etxebizitza berri libreen m² erabilgarriko prezioa, ezaugarrien arabera



ρ **Etxebizitza libre berriaren batez besteko prezioa** 192.000 eurokoa da, duela urtebete baino %16 altuagoa, beraz. Lurreldeka, berriz, prezioak honako hauek dira: Araban 168.000 euro, Gipuzkoan 209.000 euro eta Bizkaian, berriz, aurreko bien tartekoa (186.000 euro/etxebizitza).



- ρ **Etxebizitza babestuaren batez besteko prezioa** (eranskinak izan ezik) 60.000 eurokoa da, Gipuzkoako 65.0000 euro (%83 babes ofizialekoak eta %17 sozialak) eta Bizkaiko 57.000 euroen (%63 babes ofizialekoak eta %37 sozialak) arteko prezioan.

3.8. taula Salgai dauden etxebizitza berrien prezioa, lurralde historikoaren arabera

	B.O./SOZIALAK		LIBREAK	
	Milaka euro.	± % (*)	Milaka euro.	± % (*)
Araba	61,8	2,8	168,4	4,6
Gipuzkoa.....	65,4	-15,6	209,2	6,4
Bizkaia.....	57,2	-1,9	186,0	25,8
EAE	60,0	-1,2	191,9	15,7

(*): *Prezio aldaketa iazko hiruhileko berarekiko.*

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko Inkesta. 2001. urteko 4. hiruhilekoa.

3.9. taula Salgai dauden etxebizitza berrien banaketa, prezioen arabera


PREZIOA	B.O./SOZIALAK (%)	ETXEBIZITZA LIBREAK (%)			
		EAE	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA
< 54 mila €.....	44,3	--	--	--	--
54,1-72,1 mila €	21,8	0,1	--	--	0,2
72,1-96,2 mila €	31,1	1,1	--	2,2	0,6
96,3-120,3 mila €...	2,1	4,2	4,3	5,0	3,6
120,4-150,3 mila €	0,7	18,0	29,8	12,5	18,3
150,4-180,3 mila €	--	25,8	27,2	28,0	23,8
180,4-300,5 mila €	--	40,6	30,6	34,5	48,0
300,6 mila € eta gehiago	--	10,2	8,1	17,8	5,5
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko Inkesta. 2001. urteko 4. hiruhilekoa.

- ρ **Prezio-tarteen arabera, salgai dauden etxebizitza librean banaketari** erreparatzen badiogu, ikus daiteke horien %77 150.000 euro baino gehiagokoak direla (duela urtebete, berriz, %58). Izan ere, etxebizitza erdiak baino gehiagok 180.000 mila eurotik gora balio du. Fenomeno hori nabarmen ikusten da Gipuzkoan lurralde horretan etxebizitza %18 300.000 eurotik gora baitaude.



3.8. grafikoa Etxebizitza libre berrien banaketa, prezio-tarteen eta lurraldeen arabera



3.2. SALGAI DAUDEN ERABILITAKO ETXEBIZITZAK

3.2.1. Kopurua eta ezaugarriak

- ρ 2001eko laugarren hiruhilekoan eginiko inkestaren arabera, bigarren eskuko 9.472 **etxebizitza** daude salgai; iaz hiruhileko berean baino %36 gehiago.
- ρ Erabilitako etxebizitzaren eskaintza asko hazi da azken urteetan. Horrela, egungo eskaintza 1999ko laugarren hiruhilekoaren bikoitza baino gehiago da (4.495 etxebizitza eskaintzen ziren orduan). Hiruhileko aldaketaren tasa %10ekoa da, eta hazteko joera adierazten du.
- ρ Lurraldeka, eta igoera hiruretan gertatu bada ere, askoz ere handiagoa izan da Bizkaian, eta jada EAEko erabilitako etxebizitzaren eskaintzaren %55 biltzen du lurralde horrek, azken hiruhilekoetan izandako gehitze nabarmenen ondoren.
- ρ Bildutako datuen arabera, salmentan dauden erabilitako etxebizitzaren **batez besteko azalera erabilgarria** 90 m²-koa da. Gipuzkoan da handiena batez



besteko azalera: 94 m². Araban 88 m²-koa da eta Bizkaian zertxobait txikiagoa 87 m².

3.10. taula Salgai dauden erabilitako etxebizitzak eta prezioak, lurralde historikoen arabera

	ETXE BIZITZAK		PREZIOA m ² erabilgarria		PREZIOA/ETXE BIZITZA	
	Kop.	± % (*)	Euro/m ²	± % (*)	Milaka euro	± % (*)
Araba	2.670	13,7	2.733,5	2,0	216,6	1,2
Gipuzkoa	1.611	25,4	2.912,8	-1,3	253,8	-10,0
Bizkaia	5.191	56,7	2.047,5	2,0	176,0	-2,1
EAE	9.472	36,3	2.373,2	-1,3	199,3	-5,0

(*): Aurreko urteko hiruhilekoarekiko aldea.

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko Inkesta. 2001. urteko 4. hiruhilekoa.

3.11. taula Salgai dauden erabilitako etxebizitzaren ezaugarriak

	EAE (%)	ARABA (%)	GIPUZKOA (%)	BIZKAIA (%)
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0
TIPOLOGIA				
Fam. bakar/Bi familiakoa	4,2	4,1	14,0	1,2
Kolektiboa	95,8	95,9	86,0	98,8
AZALERA ERABILGAR.				
< 60 m ²	19,6	16,7	13,2	23,2
61-75 m ²	26,3	28,6	21,7	26,5
76-90 m ²	28,1	32,8	25,3	26,5
91-120 m ²	16,1	14,9	19,4	15,7
> 120 m ²	9,9	7,0	20,5	8,2

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko Inkesta. 2001. urteko 4. hiruhilekoa.

3.2.2. Salgai dauden erabilitako etxebizitzaren prezioak¹⁰

- ρ Salgai dauden bigarren eskuko etxebizitzaren m² erabilgarriaren batez besteko prezioa 2.373 eurokoa da, 2000ko hirugarren hiruhilekoan baino %1,3 gutxiago. Aurreko hiruhilekoan, jada, Bizkaian eta Araban ikusten zen eta datu


¹⁰ Gogoratu eskaintzaileak eskatu dituen prezioez hitz egiten ari garela, higiezin agentzia baten bitartez etxebizitza saldu nahi duenak eskatutakoaz, hain zuzen ere; horrek zera esan nahi du: 1) eskatzen den hasierako prezioa, normalean, negoziatzen ari direnak akordio batera heldu ondorenko prezioa baino altuagoa izango dela, eta 2) azterketaren unibertsoetik kanpo gelditzen direla bitartekaritza gabe salgai dauden etxebizitzak (partikularrek zuzenean beste partikularrei saltzen dizkietenak).



horrek moteltze hori finkatzen ari dela adierazten du (+%2 00-IVekiko). Gipuzkoan ere murrizketa bat egon da (-%1,3).

- ρ Kopuru absolututan, Gipuzkoa da batez bestekorik handiena duena: 2.913 euro/m², jarraian Araba dator (2.734 euro/m²) eta urrunera, askoz ere batez besteko txikiagoarekin, Bizkaia (2.048 euro/m²).
- ρ 2001eko laugarren hiruhileko **etxebizitzaren batez besteko prezioa** 199.000 eurokoa da eta ondorengo prezioen artean dabil: Gipuzkoako 254.000 euro eta Bizkaiko 176.000 euro.

3.9. grafikoa Erabilitako etxebizitzaren prezioa m²-ko, lurralde historikoen arabera



- ρ **Prezio-tarteen** arabera, salgai dauden bigarren eskuko etxebizitzaren eskaintzaren banaketa iaz atzemandakoaren oso antzekoa da: %75ek 25 milioi baino gehiago balio dute (%73 2000ko laugarren hiruhilekoan), eta %55ak baino gehiagok 30etik gora balio dute (%53 duela urtebete). Aipatu bezala, erabilitako etxebizitzaren prezioak nahiko egonkorak direla adierazten duen arren, bigarren eskuko etxebizitza preziorik altuenetan nola pilatzen ari den azpimarratu behar da, batez ere Gipuzkoan. Azken horretan etxebizitzaren %40 300.000 euroren gaintetik dago.




3.12. taula Salgai dauden erabilitako etxebizitzaren banaketa, prezio-tarteen arabera

PREZIOA	EAE (%)	ARABA (%)	GIPUZKOA (%)	BIZKAIA (%)
< 54 mila €.....	0,4	0,2	1,3	0,2
54,1tik 72,1 mila €ra	0,8	0,5	0,7	1,0
72,1tik 96,2 mila €ra.	2,5	0,9	1,9	3,5
96,3tik 120,3 mila €ra.	7,2	3,0	3,0	10,7
120,4tik 150,3 mila €ra	14,3	10,9	7,7	18,1
150,4tik 180,3 mila €ra.	19,5	21,8	12,4	20,6
180,4tik 300,5 mila €ra.	35,0	48,9	32,7	28,5
300,6 mila € eta gehiago	20,3	13,8	40,3	17,4
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: EAEko Etxebizitza, Garaje eta Lokalen Eskaintzari buruzko Inkesta. 2001. urteko 4. hiruhilekoa.

3. grafikoa Salgai dauden erabilitako etxebizitzaren banaketa, prezio-tarteen eta lurraldeen arabera





3. ALOKAI RUAN DAUDEN ETXEBIZITZAK



4. ALOKAIRUAN DAUDEN ETXEBIZITZAK

- ρ 2001. urteko laugarren hiruhilekoan egindako inkestaren arabera, 655 **etxebizitza daude alokairuan**, etxebizitza nagusi gisa erabiltzeko. Etxebizitza horietatik 380 (%58) erregimen librekoak dira (partikularrenak), eta 275 (%42) eraikuntza berri babesleak dira (32 babes ofizialekoak eta 243 sozialak).
- ρ Alokairuan dauden etxebizitza libreen eskaintzak behera egiten jarraitzen du, eta aurreko hiruhilekoetan agertutako joerari jarraituz, duela urtebeteko eskaintza baino txikiagoa da.
- ρ Alokairu libreen dauden etxebizitzaren **batez besteko tamaina** erabilgarria 88 m²-koa da, baina lurraldetik lurraldera desberdintasun handiak daudela ikusten da: 109 m² Araban eta 84 m² Gipuzkoan. Babestutako etxebizitzetarako dagokienez, batez besteko tamaina 83 m²-koa da (00-IV.ean 76m²).
- ρ **Merkatu libreko hileko batez besteko errenta** 637 eurokoa da, eta 2000ko laugarren hiruhilekoarekiko %7 egin du gora. Hiriburuei dagokienez, lehenengo aldiz errenta handienak Gasteizkoak dira (717 euro), azken hiruhilekoan Donostiak izan duen murrizketa handiaren ondorioz (-%13).
- ρ **Babestutako etxebizitzetako hileko batez besteko errenta** 197 eurokoa da (348 euro babes ofizialekoak eta 177 euro sozialak).

4. taula **Alokairu libreen eskaintako etxebizitzak eta errentak, lurralde historikoen arabera**


	ALOKAIRU LIBREA		HILEKO ERRENTA	
	Etxebizitza kop.	± % (*)	Euroak	± % (*)
